6 URTETIK AURRERA

UXIO ETA LAGUNAK

Gidoia eta Irudiak: Martín Romero
Itzulpena: Bego Montorio
Astiberri Ediciones. Bilbo, 2023
Kolorea. Azal gogorra
64 orrialde. 20 x 26 cm. 14 euro
Txikiberri bilduma
ISBN: 978-84-18909-74-0

MARTXOAREN 2AN SALGAI

Adiskidetasuna eta aniztasuna erdigunean

Uxíoren *jarraipena da* Uxío eta lagunak, *"kontakizun benetan ederra, eta hain da dibertigarria umeek behin eta berriro irakurriko baitute, nekatu gabe", Jesús Jiménezek* RTVE.es*-en azaldu zuen moduan*

Umeentzako beste komiki bat dakarkigu Martín Romero komikigile eta ikus-entzunezko animatzaileak. Uxíoren abentura berriak dira, izen bereko komikian -*Uxío* (Astiberri 2020)- plazaratu zen ume ameslari eta irudimentsuaren abenturak. Aurreko horretatik guztiz aparte irakur daitekeen album honetan, ez da Uxíorena entzungo dugun ahots bakarra. Harekin batera azalean tokia hartu duen Anari, Uxíoren lagun onenari entzungo diogu, baita Rosendari eta Alexi ere, gero eta irekiagoa den Uxíoren unibertsoa osatzen duten lagun horiei.

Lehen albuma ezin egokiagoa zen sei urtetik gorako irakurleentzat edo irakurketa arazoren bat izan lezaketenentzat. *Uxío eta lagunak* hau ere komiki aparta da euskaraz, gaztelaniaz, katalanez edo galegoz irakurtzen hasten direnentzat, eta mezu benetan garrantzitsuak aurkituko ditugu bertan, hala nola gizarteratzearen balioa, inklusioa edota ingurumena zaindu beharra. Bigarren ale honetan kontakizun samurrak, koloretsuak, poetikoak eta askotan surrealistak agertuko zaizkigu. Aforismo bat bezain laburrak batzuk, lagunekin emandako arratsaldeak bezain luzeak beste batzuk. Eta jolasteko modua ere eskaintzen digu Romerok, babesorrietan bi mahai-joko marraztu baititu.

Sergio Benítezek honela kalifikatu zuen *Uxío*, haurrentzako komikiaren arloko 2019ko Castelao sariduna, Fancueva blog espezializatuan: "haurren mundu irudimentsua ezin hobeki ulertu izanaren adibide argia (…) bada *Uxío*-n gauza bat zeharo liluratu nauena, planteamendu bisualaren xalotasunaren gainetik: nola uztartzen dituen Romerok, komiki osoan zehar eta modu oso sotil, ia ikusiezinez, bizitzarako ikasbide oinarrizko zenbait, gutxieneko zentzua duen guraso orok bere umeek gogoan gordetzea nahiko lukeen horietakoak".

"*Uxío eta lagunak* haurrentzako komiki zoragarria da, bikain marraztutakoa, maitasunez eta ilustrazio klasikorako begirunez josia. Irudimenez eta pertsonaia maitagarriez beteriko lan honek uztartu egiten ditu komikigintza eta errealismo magikoa: oilo erraldoiak, brokoli-arbolak edo itsasontzi pirata hegalariak".

Alberto Vázquez, animazio zuzendaria eta komikigilea

"Irakurlearen amesteko gaitasuna sustatzen duen liburu ustekabez betea".

Yexus, *El diario montañés*

"Ederra benetan, eta hain da dibertigarria umeek behin eta berriro irakurriko baitute, nekatu gabe".

Jesús Jiménez, *RTVE.es*

"Mafaldaren edo Calvin eta Hobbesen irudimen suharretik zenbait elementu maileguz hartuta, nota onaz gainditu du Martín Romerok haurrentzako komikigintzaren sarrera proba".

Josep Oliver, *Papel en blanco*

Obra honek kultura eta Kirol Ministerioaren laguntza izan du, literatur sorkuntzarako 2022. urtean deituriko laguntzen bitartez.

MARTÍN ROMERO (A Coruña, 1981) ilustratzailea, komikigilea eta animazio zuzendaria da. Diziplina horiek guztiak uztartzen ditu proiektu askotarikoak garatzeko. Ilustratzaile jardunean, publizitaterako zein mundu editorialerako lanak egin ditu, eta Espainian, Frantzian eta Italian argitaraturiko liburuak ilustratu ditu. Sortu dituen komikien artean nabarmentzekoak dira *Las fabulosas crónicas del ratón taciturno* (Sins Entido eta Apa Apa, 2011), *Episodios Lunares* (Vidas de Papel eta Reino de Cordelia, 2015) eta *La deuda* (La Cúpula, 2017); Espainian argitaratzeaz gain, hirurak itzuli dira frantsesera. *Episodios lunares* komikian oinarrituta, bere lehen film laburra sortu du, *La noche*. Haur eta gazteen komikiaren arloko lehen Castelao saria eskuratu zuen 2019. urtean *Uxío* lanarekin (Astiberri, 2020), eta horren jarraipena dugu *Uxío eta lagunak* (Astiberri, 2023).

Pertsonaia berekoak:

Uxío
64 orrialde. 12 euro
ISBN: 978-84-17575-69-4

MUNDUKO KOMIKIRIK DIBERTIGARRIENA

Ejem
Uxío, irakurri hau, mesedez.
EGILEAREN ESKUA
GAUZA DIBERTIGARRIAK GERTA DAITEZEN, OHETIK JAIKI BEHARRA DAGO.
IJI IJI